



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2009-04-05**

VII. URTEA 1.672. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Bertsolar Hitza saria Alegiara

TOLOSALDEA Ibarra izan zen atzo finala; Altzoren aurka lortu zuen Alegiako bertso eskolak garaipena

BERDINKETA Maila altua erakutsi zuten bertsolariek; puntu berdinak lortu eta hausturan irabazi zuen Alegiak > 6



Desafioaren aurretik bazkaldu egin zuten Ibarra Gaztetxean bildu zirenek; giro ona sortu zen bertan. N. URBIZU



Mutilek eta neskek banatuta egin zuten lasterketa; irudian, irabazlea. N. URBIZU



Txikiak dantza giroa herrian barrena barreiatu zuten; jende ugari bildu zen haien inguruan. N. URBIZU

TXIKIENEK EUSKAL DANTZAK ZABALDU DITUZTE TOLOSAN > 5

Abdelhak Sabhik irabazi du Leitzako XXXI. Herri Krosa, seniorren mailan

LEITZA 30:25eko denbora egin zuen; Aurrerakoak gustura azaldu ziren; 400 lagun aritu ziren > 7

Danena-Olaederra taldekoek domina ugari Gipuzkoakoan

VILLABONA Junior eta absolutu mailan aritu ziren pultsulariak atzo Olaederra kiroldegian > 7

Desagertzearen liburua VI



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Uharte honek pentsatu izan dut pandero forma duela, ez galdetu zergatik, akaso beti mugimenduan dagoelako eta gurpil forma edo panderoarena bururatzaren zait izan dezakeela.

Baina panderoaren formakoa gehiago dagokio neure buruari,

berehalako dam-dam zurrumbilo ozenkiarekin.

Gogoratzen dut neure herrian kanpaiak nola jotzen zuten gau eta egunez dam-dam. Ez zuen niretzako behintzat zer ikusi handirik kristautasunarekin, baizik eta urrundik zetorren errito batekin.

Akaso Ituringo arotzak kanta dioen bezala, San Kristobal urtzearekin joareak egiteko, gehiago betetzen ninduen.

Gero, jende desagertzearekin batean, zenbait gauza aldatzen hasi ziren, beste batzuen artean, gaueko kanpai hotsak. Jendeak, herritarrak ezin omen zuten lorik hartu.

“Gaua, gauekoentzat horrela bildu zuen Barandiaranek.

Mamuei ez ote zaizkie gustatzen ba Kanpai doinuak?

Globalizazio madarikatu honek halako lanak ematen zizkigun edo ematen zizkidan, gaur egun dagoeneko nire uharte honetan ez dago nire globalizazioa besterik.

Kanpaiak gau eta egun jotzen zuten garai hartan, ba nuen an-dregai bat baina denok kotxe, denok etxea, denok txintxoak, denok lanera, denok istilu gutxi eta erabaki nuen globotik jaitea. Hantxe gelditu ziren bat batean erretako pinudi basoa geratzen den moduan, denak zutik, su ga-

rrak belztuta, geldirik, marmarraren isilean. Nire herri maitearen kaleak ilunak ziren, bizitzaz beteriko iluntasun krisielua, ametsa zen nagusi, ontzaren ululak eta eliz dorreko kanpai ez-tulak.

Lo, lo zeudenak argiak ipini zizuten kale haietan eta isiltasun grotesko bat sortu arazi zuten.

Non daude izar argitsuak? Non gaueko gizakien elkar hizketak, non beraien kantuak?

Frontoiak ere espazio sakratutzat, Oteizak jotzen zuena, kartela publizitario batean bihurtu zuten, baina ba zirudien denak normaltzat jotzen zutela, pilota salto-ka ibiltzea publizidade iragarkiz

estalitako ukuilu batean, hura ez zen frontoia.

Kanpaien damm-damm soinu kutsadura ote?

Argiena argi dago, txikitari zeri ilunetara botatzen genituen xerapelak, sagu zaharrak harrapatze-ko garai haietatik urrun gabiltzala.

Eta frontoiak, inork ba ahal daki zer den estetikaren kutsadura?

Hizkuntza batek ez ditu arau gramatikalak bakarrik behar, bai eta ere hizkuntza paisaia bat, belardi, soro, itsaso, mendietan bai eta ere egunerokotasun horretan dagozkion beste zenbait detaile.

Itxas botel mezulari batean sartuko dut kondaira hau, akaso beste aldean nire moduko desglo-bazitutako bakar bat aurkituko dut.

Z Zurea da hitza

■ info



Azkenaldi honetan emakumeenganako indarkeria kasuak areagotzen ari dira, eta bereziki gazteengan. Zergatik uste duzu dela hori?

■ **Lore.** «Ez dakit, jende gazteagoengan kasu gehiago ematen diren ala ez. Baina gaur egun kasu askoz gehiago salatzen dira lehen baino, erraztasun gehiago daudelako eta baliabide gehiago daudelako. Baina egoerak ez duela hobera egiten, seguru, gainera, «justiziak» ez du ia ezer ere egiten. Pentsaezina egiten zait nola egon daitekeen kasu honetan emakume bat jotzeko gai den pertsona bat, hurbilen duen pertsona. Gizartea, sistema, munda, jendea, gaixo dago.»

■ «Lotsagarria da gertatzen ari dena eta medio batzuek notiziak nola kontatzen dituzten ere bai! Hilketa baten aurrean gaude, eta bost inportatu du familiaren arraza edo nolakoak, emakumea hil dute eta hori da ezin duguna onartu. Nire ustez, ez da behar beste egiten emakume hauen heriotzak sahiesteko!».

Udaberrian alergia izaten al duzu? Nola moldatzen zara aurre egiteko?

■ **Xabi.** «Niretzat udaberria oso txarra da. Sekulako amorrua ematen dit baina urtaro hain polita eta ezin aprobetxatu. Nik polenari eta hautsari diot eta ea nola moldatzen naizen? Ahal dudana bezala, egia esan. Erremedio asko esan

dizkidate baina probatu dudana probatuta ondorioa: agoantatzea eta gaixki pasatzea, besterik ez».

■ **Idoia.** «Uf! Ze perezeta nik graminiari-edo diot alergia eta apirila-maiatza aldera ia aguantaezina izaten da: azkurea, begi gorriak, nekea, mukiak, ... Saiatzen naiz mendira eta ez joaten baina ezin gara etxean itxia geratu eta niretzat behintzat kalera ateratzea nahikoa da alergiarekin hasteko...»

■ **Iñaki (Tolosa).** «Nire amak 65 urte ditu eta aurten detektatu berri diote alergia. Eztulka zebilen, eta egia esan, uste genuen gaizki sendatutako katarro bat izango zela. Ba, lehengo astean bertan alergia dela esan diote. Botikak hartzen hasi beharko da hemendik aurrera».

Ikasleak ere Korrika Txikian

TOLOSALDEA ■ Korrika 16ko jaialdia Gasteizen ariko dira orain ospatzen, baina aurretik gure eskualdean ere izan da Korrika. Eskolakoek Korrika Txiki egin zuten, esaterako Lizartzan eta Altzon. Altxokoak, eskolatik abiatu eta plazaraino joan ziren lekukoa ikasmailaz ikasmaila pasatzen. Korrika handian Murua txirindulari profesionalak eraman zuen. **HITZA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

B Blogteka

■ info

Euskara eta iparrik gabeko kontuak

Joxe Manuel Odriozola euskara irakasleak BERRIAN argitaratutako iritzi interesgarria irakur dezakezue.

Bere zenbait sentimen gazi-gozak azaltzen ditu, autokritika gehitzen du, elebitasunaren gaian izandako pentsamendu aldaketa eta azken finean nire iritzi (Joseba), Iparraldeko kontuak ez dakit ez ote diren Iparrik gabeko kontuak.

Jarraian idatziaren amaiera: Alde batetik, solasaldiko euskaltzale batek zioen moduan, gertatzen zaigun baliabiderik eraginokorrena euskal hiztunaren euskaltzaletasuna edo militantzia izango genuke. Haatik, bide hau ere ez da biziki ahaltsua, eta merezi du xehetasun batzuk egitea. Hiztun-herri

menderatuen ataka makurretik ezin omen da atera baldin eta delako hizkuntza komunitate horrek horretarako borondaterik erakusten ez badu. Hori diote bederen adituek. Eta ni bat nator iritzi horrekin. Baina, jakina, gauza bat da hiztun-herri baten borondatea eta beste gauza bat hiztun-banakoaren borondatea edo militantzia. Nik azkeneko honetan ez dut sobera sinesten, ezintasunaren erakusgarri delako; alabaina, borondate hori komunitate-gogoabaltz, orduan gauzak besterik lirakek. Beraz, euskararen etorkizuna ez dago euskaldunaren esku, hiztun hori bakarrik hautemanda.

Gauden amildegitik ateratzeko proposamenak direla eta, erran dezadan, hitzaldi-solasaldi hartan erran ez nuen beste gauza bat. Iruditzen zait gauza bat bederen gero eta argiago dagoela gure herrian:

«Abertzale izatea ez da aski». Are gehiago, konbentzizuta nago abertzaleatasunaren aldeko jarrera eta ideologia elebitasunaren kontzeptua bezain iruzurtia dela. Iruzurkeria dario euskalduntasuna autonomismoaren eta erabakimena-aren parean jartzen ez duen abertzaleatasunari; iruzurkeria dario euskalduntasuna independentziaren eta sozialismoaren maila berean jartzen ez duen abertzaleatasunari. Iruzurkeria dario, orobat, nazio-identitateaz espainola edo frantsesa den herritarrari euskara ikasi behar duela erratan dion abertzaleatasunari, bien bitartean abertzaleatasunaren mundua -gehiengo omen gara Euskadina- erabat espainola delako bere praxi soziolingüistikoa

Hirikide ikastetxea
<http://www.tolosaldekohitza.info/blog/hirikide>

A Asteko irudiak

Korrika 16



Korrikak eskualdea zeharkatu du

TOLOSALDEA • Gaur amaituko da Korrika 16, Gasteizen. Aurretik milaka kilometro egin dituzte Euskal Herriko milaka euskaltzalek, guztiak euskararen alde lanean. Leitzaldeak eta Tolosaldeak ere jaso zuten lasterketaren bisita. Leitzatik, pasa den martxoaren 28an igarozen eta eskualdetik, berriz, apirilaren 2an. Irudi asko utzi ditu lasterketak: irudietan, ezker-

eskuin eta goitik behera: Ikaztegieta herriko alkatea, Eneritz Maiz, lekukoarekin. Tolosan, Olatz Peon, udal ordezkariak lekukoa hartu zutenean; Leitzatik igaro zenean herritarrek harri berrera beroa egin zioten; Adunara igotzen, Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea lekukoarekin; eta Villabonako Kale Berria zeharkatzen. A. IMAZ/E. EZEIZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Arrantzatze- garaia iritsi da

Tolosa » Uztailaren 31n bukatuko da arrantza denboraldia; ibaietako amuarrainak eta barboak hartzeko unea iritsi da, hortaz.

REBEKA CALVO

Hasi da ibaiko arrantza denboraldia eta ondorioz geroz eta gehiago dira gure ibai eta erreketan arrantzatzeraz gerturatzen direnak. Denboraldia zehazki martxoaren 22an hasi zen eta uztailaren 31 bitarte iraungo du. Tarte honetan guztian zehar amuarrain arrunta, ortzadar-amuarraina eta barboa arrantzatu ahal izango dira eta abuztu eta irailean, gainera, karra-marroak ere hartu ahal izango dira, nahiz eta hilabete bakar batean zehar eta Leitzarain ibaian bakarrik hartu ahal izango diren.

Berrikuntza

Aurtengo denboraldian, hala ere, bada kontutan hartu beharreko berrikuntzarik, izan ere Araxes eta Leitzarain ibaietako esparru intentsiboetan ezin da amuarrain arruntik hil, hartu eta itzuli egin behar da. Araudiak beste xehetasunik ere jasotzen du, leku honetan ezin baita arpoitxo erabili, ezta amuzki naturalarik ere...

Azken baldintza honekin, gainera, arazoak ere izan dituzte, nahiz eta denboraldia hasi besterik ez den egin: «Salaketa ugari izan dira, jendeak amuzki naturalak erabili dituelako. Behar bada, ez zekiten ezin zen egin, arau berria baita, baina egia da ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituztela hartu beharreko neurri guztiak. Gutxi dago eta amuarrain hori berreskuratzeko hartu beha-

Amuarrain arrunta, ortzadar-amuarraina eta barboak har daitezke uztailak 31 bitarte.

Aurten ezin da amuzki naturalak erabili; amuarrain birpopulaziorako ezinbestekoa da.

rreko neurria zen. Ortzadar-amuarraina har daiteke, baina esan bezala amuzki ezin du arpoirik izan...», argitu du Pedro Gomezek, Tolosako Arrantzaleak Elkarte-ko lehendakari eta Gipuzkoako Arrantza Federazioaren zuzendakari teknikoa denak.

Baina arauak bete nahi ez dituzten arrantzaleez gain amuarrainek badituzte bestelako mehatxuak ere, erretenetan, batez ere: lertxunak eta ubarroiak. «Erretenetan dauden amuarrain guztiak jaten dituzte lertxunak eta ubarroiak,

beren aldetik, ibai zabaletara iristen direnean benetako basakeriak egiten dituzte. Birpopulatuak amurraingo asko ez dira oso bizkor ibiltzen eta segituan hartzen dituzte ubarroiak. Behin Andoain parean birpopulatuak amurraingo filmatzen ari ginela ubarroi talde bat gerturatu, uretara sartu, eta mokoan amurraingo zituztela ateratzen ziren etengabe. Hartu ez zituzten amurraingoak, gainera, ibai ertzera joan eta bertan lertxunak zituzten zain», esan du Gomezek.

Fenomeno hau, gainera, berri samarra da, «lehen, hemen, ez baitzeuden bi espezie hauek. Ez dakit zergatik gerturatu diren bi espezie hauek, ez dakit urak aldatu direlako den... Egia esan lehen emigratu egiten zuten, baina orain bertan janaria ere badaukatenez, zertarako joango dira jan bila hemen eskura izanda? Amuarrainak oso erraz hartzen dira, ez arrantzan egoten diren gazteek bakarrik lertxunak zein ubarroiak ere oso errezt hartzen dituzte».


Amuarrain birpopulazioa

Tolosako Arrantzaleak Elkarteak esfortzu ikaragarria egin du azken urteetan gure ibaietan amuarrainak berriz ere ikusi dituzte: «Ore-xako erretenetik ateratako ugalketarako amuarrainekin egin dugu lan azken bi urteetan, arrainkumeak ziren, 5 bat zentimetrokoak, gure nahiabeti izan da arrainkume horiek nagusitzea eta orain, martxoan, kume horiek bi urte bete dituzte jada eta lehen errunaldia ere egin dute. Normalean ez da gomendagarria hau egitea, arraba hauek ez direlako egokiak, baina hurrengo urteari begira ona da, ezin baitzaizkie arrabak barruan utzi».


Ezustekorik izan dute, hala ere, izan ere profesionalekin egindako hustutze hauetan topatutako arrabak «bizirik atera dira, nahiz eta 300 bat kilogramo zituzten eta bizirik aterako kilo behar izaten duten. Nahiko harrigarria izan da, egia esan».

«Orain lortu nahi duguna da hauek gurasoen jatorriira itzultzea. Ez duguna egin nahi da amuarrain hauek Goierriera eramatea, adibidez, bertako amuarraina izatea nahi dugu; Errioxan, Astuariasen, Nafarroan... egiten ari diren bezala, hain justu. Horrela amuarrainen geneak ez nahastea lortu nahi dugu», argitu du arrantzaleak.

Urteetan huts-egite asko egin izan direla onartzen du Gomezek,



Azken asteetan gazte asko aritu dira Tolosa inguruan arrantzan. R. CALVO



Eneko Lasa gaztea Tolosako Arrantzaleako kidea da eta mundu mailako txapela irabazi du orain gutxi. HITZA

tartean «geneak nahastea». «Lehen Araxesetik Gipuzkoa guztia hornitzen genuen eta orain ez», dio damaturik. «Amuarrain desberdinak daude, hemen amuarrain triploideak ere baditugu eta ibaiaren urak kalitate oso ona ez duen tokietara botatzen dugu; hemen Ibarrik Tolosarako bidean jartzen ditugu, Txaramatik Tolosara... Leku hauetan paper-fabrikaren isurien ondorioz ura ez dago guztiz garbi», gaineratu du arrantzale elkarte-ko lehendakariak.

«Arrain-haztegia 50.000 bat amuarrain ditugu eta hauek ere birpopulatu ari dira eta urtegi-tara ere botatzen ditugu; Laredo, Arriaran... Gazteen txapelketan ere, Oriako Txapelketa izaten denean, botatzen ditugu», azaldu du.

Zaletasun handia Tolosaldean

Tolosaldean beti egon izan da arrantzarekiko zaletasuna, baina azken urteetan behera etorri dela ere dio Gomezek: «Gipuzkoako haurren txapelketan 300 gaztetik gora ere izan ditugu hiru mailatan (haurrak, jubenilak eta alebinak), baina azken urteetan 80 partehartzaile izaten ditugu batz bestek». «Ni gaztea nintzela ia ez zegoen besterik. Oso guttura hartzen genuen, baina gaur egun mila gautz dituzte; futbola, pilota, interneteko kontuak...», gogoratu du. «Gi-

puzkoan 5.000 lizentzia ditugu, baina 12.000 lizentziatara ere iritsi gara. Haurrak animatzen dira, txapelketetan hartzen dute parte... Baina ondoren, 17 eta 20 urte artean, ez dira horrenbeste animatzen. Jubenilen artean, hala ere, maila handia dugu, Alegiako Eneko Lasa adibidez, Gipuzkoako txapelduna da, baita Euskadikoa ere eta mundu mailako txapeldunordea ere bada. Horregatik egin diogu omenaldi txiki bat ere orain gutxi elkartean», azpimarratu du.

«Ditxosozko kolektorea»

Orain, hala ere, Oria ibaia kolektorearen obrak direla eta muga ugari dituzte arrantzaleek, «ea behin-goz Oriako ditxosozko kolektorearen lanak bukatzen diren. Hasi hasi ziren, baina ez dira inoiz ere bukatzen... Nik uste etorkizunean Oria ibaia zoragarria izango dela, enpresen isuriak neurritzen badira... oso polita geratuko da», dio.

Oria ibaiak, behar bada, datozten urteetan berreskuratuko du garai bateko diridira, bitartean, gauza asko aurreratu dira, Gomezek behintzat oso argi du: «Ni bate-lan aterata izan naiz urte askotan, 11 urterekin hasi nintzen eta 13 urteetan egon naiz horretan eta Oria lehenengo zegoen bezala ezagutu izan dut: beltza eta aparrarekin. Gaizki usaitzen zuen, tristura asko ema-

ten zuen». Azken urteetan egin diren, eta egiten ari diren, berrikuntza lanei esker, hala ere, badirudi ibaiaren osasuna hobetuko dutela. «Ibiurreko presagaineako kontua ere badugu, ez dakigu noiz inauguratuko dugun, zain gaude. Hor ere zerbait egiteko asmoa ere badute eta. Orian, Tolosan, gainera, presagain puzgarria ere jarriko dutela esan dute. Ibiurrera era joan nahi zuten, baina bertan edateko uda egongo da, eta beraz ezingo dutenez egokiena presagain puzgarria izango dela dirudi. Egin egongo da eta horrela Tolosa mailan ur maila igoko da eta sakonera handiagoa lortuko dute. Garrantzitsuen, dena den, ibaia, ura, garbia egotea da».

Baina kutsadura eta espezie arrotzak ez dira gure ibai eta erreketako mehatxu bakarrak, izan ere Gipuzkoan Leitzaraineko ura kalitate askokoa bada ere, «zentralen kontua» hor dago. «Turbinetara ura eramateko ibaitik hartzen dute eta leku askotan emaria ez da gutxiengo emari ekologikora iristen. Orain gutxi Leitzarainen izan nintzen eta gorako zatian ura orkatilera bakarrik iristen zen, ez dut imajinatu nahi abuztuan nola egongo den. Badirudi zonalde honetan ez dutela zentralak egiteko baimen gehiago eman nahi, baina ikusiko dugu», argitu du Gomezek.

Pausoz pauso hiria dantzan

Gizartea » Dantzari Txikien Eguna ospatu zuten atzo Tolosan eta Euskal Herri osoko dantzariak bildu ziren, plazetan dantzak eskainiz.

NEREA URBIZU

Atzo dantzari txikienek Tolosako kaleak hartu zituzten. Euskal Herriko hainbat txokotatik hurbildu ziren Dantzari Txiki Egunean parte hartzeko asmoz. Bapo gosaldu ondoren, 11:30a aldera Alde Zaharretik atera eta Tolosa guztian zehar barreiatu ziren.

Lapurarrak azaldu ziren lehenik Triangulo plazan eta atzetik gasteizarrak ailegatu ziren. Plaza guztietan eskaini zituzten dantzak, bakoitzak hainbat hilabetetan zehar ikasi eta prestatutako dantzak, ikusleengozamenerako.

Jende asko erakartzeko ahalmena izan zuten dantzari txikiek, jantziengatik, dantzengatik eta

musikarengatik ere, noski. Tanttaren bat bota zuen noizbait, baina ez saioak zapuzteko moduan.

Dantzarien batek ez zuen dantzatu, urduritasuna zela eta. Besteren batek abarka galdu zuen eta batzuk dantzatzeko jarraitu zuten baina beste batzuk amaren laguntza oinetakoa berriz ondo jartzeko nahiago izan zuten.

Ezagunak eta tokian tokikoak

Hernaldekoak, Tolosakoak, lapurarrak, gasteizarrak, otsagiarrak, Zumarragoak... Norberak bere lurraldeko dantzak eskaini zituzten, eta hauekin batera ikusleentzako arteen jada ezagunak direnak ere bai.



Goian Otsagiko mutilak. Behean, Udaberri taldeko txikienak txistulariez lagunduta. N. URBIZU



Dantzan hasi aurretik atsedean pixka bat har zezaketen dantzariak: ezkerrean Gasteizko neskato bat. Eskuinean, «Arkuen dantza», Udaberri taldekoen eskutik. N. URBIZU

Aberri Eguna, «euskal herritarren burujabetzaren aldeko aldarrikapena»

Tolosa » «Herri gisa eta euskal herritar gisa dagozkigun eskubideak defendatu eta aldarrikatu behar ditugu».

ERREDAKZIOA

Gaur zortzi, hau da, hilaren 12an Aberri Eguna ospatuko da. 1931. urtetik Euskal Herriaren eguna eta euskal herritarren eguna da, «aldarrikapen eguna». Bada, Tolosako ezker abertzaleak herritar guztiei bertan parte hartzeko deia luzatu zuen atzo Tolosan. Bestalde, *Aldaketa garaia, burujabetza*



Atzoko prentsaurrekoan jendeak parte hartzera animatu zuten. NEREA URBIZU

garaia deituta, Aberri Egunaren aldeko mozioa sartu dute udaletako bilkuretan onartzeko.

«Gure herriaren egoera ez dago inola ere normalizatua oraindik, estaturik gabeko nazioa gara, bere buruaren jabe ez den herria». Horregatik, Euskal Herriari dagozkion eskubideen defentsan ospatuko dugu Aberri Eguna». Izan ere, «Frantzia eta Espainiako estatuak helburua ez da aldatu; Euskal Herria ukatu, zatitu eta historia liburutako zoko ilun batera kondanatu nahi dute».

Honela, «Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko bidean urrats eraginkorak eman daitezten, Abe-

ri Egunean abertzaleen eta sektore ezberdinen arteko elkarlana sustatu nahian» egin zuen atzo ezker abertzaleak adierazpena prentsaurreko bidez.

Euskal herritarrei eta «bereiziki tolosarrei, Euskal Herria eraikitzeko eta pairatzen dugun gatazka politikoa era demokratikoan gainditzeko dinamiketan inplika daitezten» deia egin nahi izan zuten. Era berean eta «aldarrikapen egun honen aurrean» eragile politikoei, sozialei eta sindikalei «arduraz, alderdikeriak baztertu eta herri gisa jokatzeko» deia egin zuten.

«Ikurrinak ateratzeko eguna»

Bukatzeko, «euskaldun guztiak batzen gaituen ikurra, Ikurrina, etzeko leihoan eskegi eta Irun eta Hendaiara artean ospatuko dugun Aberri Egunean» parte har dezaten gonbitea egin zuten.



Iriarte, mikrofonoarekin, maila altuan aritu zen atzoko finalean. Felix, Imanol eta 'Zaztarre' izan ziren Alegiako taldeko beste hiru kideak: irabazleak. ASIER IMAZ

Desafioa alegiarrek irabazi dute Altzorekin berdinduta amaitu ostean

BertsolarHITZA »

Luzapena behar izan zen Desafioaren finala nork irabaziko zuen jakiteko Ibarako Gaztetxean.

ASIER IMAZ

Amaitu da aurtengo desafioa. Alegia eta Altzo, Altzo eta Alegia, nor baino nor Ibarako Gaztetxean. Agur bat bailitzan esker mila denei: hiru bertso eskoletako kideei, ikusleei, gaztetzeei... amaierarik gabeko zerrenda. Denei zorionak beraz, eta modu berezi batean Alegiako bertso eskolari: «Mundialak» izan direlako.

«Luzapena» eta guzti

Ohi bezala bost epaile aukeratu ziren saioaren hasieran. Hauek euren lana bikain burutu zuten eta emaitza honakoa izan zen finalaren amaieran: bi bozka alegiarrentzat, bi bozka altzotarrentzat eta berdinketa bat. Zer egin orduan? «Berdinketa haustea».

Bi bertso eskoletako kideek maila altuko finala burutu zuten ordu-raino. Alegiarrek ezusteko eta guzti ekin zioten saioari, Beñaten lekuan Imanol Irazustabarrena eraman baitzuten Gaztetzera. Lan kontuengatik Beñatek ongimerezi zuten finalean ez zuen kantatzeko aukerarik izan beraz.

Altzotarrak ere sendo aritu zi-

ren, ohi bezala. Paretsu joan zen beraz atzoko finala.

Berdinketa hausteko Iriarte eta Etxorde igo ziren ohol-tza gainera. Koplatan euren aldeko bozkek biltzen aritu ziren eta epaileek 3-2ko emaitzarekin Alegiaren alde egin zuten.

Bigarren edizioa

Atzo Tolosaldeko eta Leitzaldeko BertsolarHITZA Desafioaren lehen edizioa amaitu zen. Hala eta guztiz ere, bertsolariek bigarrena hitzetik hortzera ibili zuten. Hori bai, horretarako beste herrien partehartzea beharrezkoa izan dena.



Altzoko taldean Laso, Etxorde, Adur eta Olano aritu ziren bertsoetan. ESTI EZEIZA

Erramu festa bezperan eskaintza handia Tolosako Azokan

PABLO ALBERDI

Urtero bezela erramu sorta asko izan zen atzo Tolosako azokan. Erosle askok eskatuta, arrakasta handiko produktuak izaten dira garai honetan. Hauekin barazkien artean ere ikusi genituen berrikuntza batzuk. Aurtengo kanpolibreko lehenengo barazkiak agertu dira, eta datozen asteetarako bakak eta ilarrak agertuko dira.

Berdura plazako giroa eta eskaintza oso bizia da egun hauetan. Udaberriaren eragina oraindik ez da nabarmen ageri, eta argi dago datozen asteetan eskaintza mantentzeaz gain, haunditu ere egingo dela. Atzo aurtengo lehenengo hortentsiak ikusi genituen berrikuntzen artean. Hiru koloretan 10 eta 12 euroko tarlean saldu ziren. Barazki landare berriak ere hasi dira: tomateak, Ibarreta Gernikako piperrak, tipulak, berenjenak eta abar.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Azalea	8,50	-
Erroneroa	4,00	6,00
Geranioa	1,90	2,00
Klavelina	3,50	20,00
Xarbota	4,00	6,00
Hortentsia	10,50	-
Alegria	1,00	-
Biola	3,00	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Barazkiak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	3,00	5,00
Porrua	1,00	3,00
Babarrun zuria	8,00	-
Baina	4,00	6,00
Kalabaza	1,50	3,00

Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	2,20	-
Arraultzak	1,10	2,40
Artisau ogia	2,80	3,70
Madalenak (500gr)	3,60	-
Irasagarra	3,00	6,00

Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardi-gazta	14,00	18,00
Ardi-Behi Gazta	11,00	-
Behigazta	8,00	9,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baratxuria	1,60	6,00
Aza	2,50	3,00
Letxua	1,00	-
Intxaurra	4,00	6,00
Mermelada	3,00	3,60
Azukrea	3,35	-
Arraultzak	3,50	-
Kogoiola	1,00	-
Erremolatxa	1,60	-
Ahuntz gazta (200 gr)	3,00	-

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Intza.** Herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzeakoa, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua, Aralarko magalean landetxea jartzeko aukerakoa. Harremanetarako telefonoak: 628 03 07 27, 646 1114 85 eta 609 2183 41.

estanga@wanadoo.es.

■ **Ukenduia.** Fistula edota erredura arazoak, zirujia gabe. Dena naturala. Deitu konpromezu gabe. 618 62 83 11.

garitxu70@hotmail.com.

■ **3 ahari eta esne tankea.** Hiru ahari latxa mutur gorri eta esnea hozteko 250 litroko tankea salgai. Harremanetarako deitu ondoren go telefonora: 943 50 44 98.

LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak etabar. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. Irene: 638 94 46 04. Itsaso: 695 70 82 71.

■ **Kamarera.** Kamarera behar da esperientziarekin larunbatetarako, Tolosan. Interesatuak deitu: 680 10 39 59 edo 635 75 25 23.

Abdelhak Sabbi izan da kroseko seniorren mailako txapelduna

Leitza » Leitzako XXXI Krosean «parte-hartzea handia izan da», bai ikusleen aldetik, bai korrikalarien aldetik.

NEREA URBIZU

Jendetza animatu zen Leitzako Krosean aritzeko: seniorren mailan Sabbi izan zen azkarrena, proba 30:25ean eginez. Eguraldi bikaina egin zuen korrika egiteko eta jendea ere ederki aritu zen animatzen. Sari asko banatu zituzten, zortzi mailatan zeuden antolatuta korrikalariak (herritarrena barne).

Leitzako jende ugari atera zen, Aurrera kirol elkarte antolatzaileen esanetan, «jendetsuenetakoa izan da». 400 lagunek hartu dute parte. Zortzi talde leitzarretik seik lortu dute axuria, 48 minutu azpitik egin baituzten korrikaldia.

» SAILKAPENA

■ Seniorrak, lehen bi gizonak eta lehen bi emakumeak.

Abdelhak Sabbi, Hicham Slamrani, Laila Jaud eta Maitane Meleio.
Lehen leitzarrak: Garbiñe Errandonea (23:05) eta Fernando Irazoki (35:54).

■ Beteranoak.

Oscar Primo, Daniel Sanz, Rosa Orofino eta Eva Zabalegi.
Lehen leitzarrak: Ainhoa Astibia (26:36) eta Juanbau Ansorena (42:12).

■ Juniorrak.

Goreti Sagastibeltza, Leire Sagastibeltza, Angel Pelaez eta Unai Imaz.

Herriko lehenak: Ixiar Mutuberrria.

■ Kadeteak.

Ane Intxausti, Naroa Fernandez, Xabier Lopez eta Aritz Lezea.



Lehendabiziko bueltan jendea bizkorrago zihoan. Ondorengoetan nabaritu zitezuten nekeak... N.U.



Emakume talde bat, industrialdera iristear. Eskuinean, Iparra, Bereau eta Zaba leitzarrak, aldapa gora... N.U.

Danena-Olaederrakoak bikain Gipuzkoako Txapelketan

Halterofilia » Danena-Olaederrako halterofilia taldeko pultsulariek domina ugari lortu zituzten atzoko txapelketan.

A. IMAZ

Olaederra kiroldegian Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten atzo junior eta absolutu mailatan.

Bi mailatan jokatu arren, hauen barnean, pisuaren arabera kategoria ezberdinetan aritu ziren pultsulariak. Ikustera jende asko joan

ez baldin bazen ere, halterofilia kirol ikusgarria eta gogorra dela erakutsi zuten pultsulariek.

Txapelketako emaitzak

Juniorretan Danena-Olaederrako kirolariak ondorengo emaitzak lortu zituzten: 56 kilokoetan; lehen Alain Moleda gelditu zen, bigarren Asier Gallego eta hirugarren Joseba Arrate. 62 kilotan; Adrian Sasiainek garaipena lortu zuen. 69koan; Igor Sasiain eta Iker Hernandez lehen bi postuetan gelditu ziren. 77 kilotan; Angel Martinek irabazi zuen. Ondoren Iñaki Zu-

belzu gelditu zen. Azkenik, 85 kilotan; Mikel Kintanak lehen postua lortu zuen.

Absolutu mailan, 56; 62 eta 69 kiloko pultsulariak juniorretako berberak izan ziren podiumean. 77 kilokoetan; Francisco Gonzalezek irabazi zuen. 85 kilokoetan; Javier Aranburu gailendu zen. Bigarren Javier Ramirez gelditu zen eta hirugarren Borja Bravo. 94koetan; Jon Mendizabal eta Jose Antonio Sola izan ziren lehen biak. Azkenik, 105 kiloko pultsularien mailan, Daniel Legorburuk lortu zuen lehen postua.



Zuhaitz gehiago ikastolara bidean

IRURA » Iruran Zuhaitz Eguna ospatu zuten atzo. Ikastolako ikasleek erai-kinaren inguruan zuhaitzak landatu zituzten eta ondoren merienda hartu zuten. Pixkanaka hazitzen ikusiko dituzte orain herritarrek... N.LATABURU



Danena-Olaederrako halterofilia taldeko pultsulariak bikain aritu ziren atzo Gipuzkoako Txapelketan. ASIER IMAZ



Ibarra Udal

UZTAILA OPORRETAN EUSKARAZ 2009



Uzturpe Ikastola

- **BEGIRALE IZATEKO LANPOLTSA ERATZEKO DEIALDIA**
- **BALDINTZAK:**
 - Euskaraz jakitea
 - Begirale titulua izatea
 - Ibartarra izatea balioetsiko da
- **CURRICULUMAK** korreo elektronikoz helbide honetara bidali apirilaren 18a baino lehen: ibarra@ikastola.net (gaia: oporretan euskaraz)



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Erakusketa

■ **Tolosa.** Mariano Arsuaga artista tolosarraren *Kaleidoskopia+12* erakusketa Aranburu Jauregian. Antolatzailea: Udal Kultur Batzordea.

Zinema

■ **Tolosa.** *Bienvenidos al Norte* filma Leidor aretoan 19:30ean eta 22:00etan. 17:00etan, *Un chihuahua en Beverly Hills* (haur-errentzat saioa).
■ **Villabona.** Gurea aretoan *Che Guerrilla* filma ikusgai. Apirilaren 4ean, 19:30ean eta 22:30ean. Apirilaren 5ean, 19:30ean. Apirilaren 6an, 21:30ean.

Deialdiak

■ **Irura.** Gipuzkoako batzar nagusien lana zein den jendeari ezagutarazteko autobus bat egongo da herriko enparantza nagusian, bihar. Adin guzientzat egokia dela esan dute antolatzaileek.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe ubilatu elkarteak Galizara maiatzaren 11tik 17ra irteera antolatu du 255 eurotan (ez bazkideek 260 euro). Izen-ematea, elkartearen bertan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzotz-azoa, 9. 943 675118.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Kantu Jira udaberriko txorien moduan

ASTEASU Iragan asteburuan Tolosan irten ziren kalera; Ibarra bazkaria egin zuten; Leiztan azken ostiral honetan Aurreran bildu ziren eta Asteasun atzo aritu ziren. Euskal kantuen inguruan sortu den giroa aipagarria da. Eskueta liburuxkak dituzela iritertzen dira kalera eta musikaren lagun-

tzaz edo ahotsen indarraren babesarekin, gure kulturaren altxorrek abesten dituzte. Asteasuarren maila goraiatzekoa izan zen gainera. Goxo-goxo eta armonia handiz aritu ziren herrian zehar euskal kantuar abesten atzokoan. Entzule bezala gerturatzen zirenak? Gozatzen. A. IMAZ

A Agurrak



Urte askoan!

Haizea Jauregi Aristi (Aldaba Txiki). Gaur 3 urte. Zorionak etxeko sorginari familiaren partetik.



Urte askoan!

Bihar Peruk 4 urte. Zorionak etxeko guztien partetik, eta ondo ondo pasa zure egunean!



Urte askoan!

Amona Inaxi. Zure iloba eta biloben partetik. Oso ondo igaro zure urtebetetzeko gaurko eguna.

agurrak urtebetetzak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bazkideak: 14 €
Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€
10 liburu 140€

Salmenta puntuak:
• Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bulegoetan,
• Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutegietan.
• Ibarra Lurdes liburutegian.
• Villabonako Basajaun liburutegian.



ARANZADI

galtzaundi

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**